



KANALAK:

Gure bezeroekin zuzenean jardungo dugu, beste edozein bitartekorik erabili gabe. Behin produktuaren ezaugarriak adostuta daudela gure langileek kamioia garraiobide gisa erabiliz garraiatuko dute produktua bezeroen etxeetara. Honela, gure bezeroarekin kontaktu zuzen bat garatuko dugu, produktua beraien eskuetan utziz. Edozein desadostasun edo arazo azaltzen bada, kontaktu zuzena dugunez, gu konpontzeko gai izango gara arazo hori. Gure kanalak enpresaren berezkoak dira, errentagarriak direlarik. Bezeroekin adostutako ordutegiak jarraituko ditugu. Gure web orrialdean daude gure produktu eta zerbitzuen xehetasun guztiak, eta bertan gurekin kontaktuan jartzeko baliabide guztiak daude, hala nola, helbide elektronikoa edo telefono zenbakia.

